

Harremanak artzainen artean

E.: emen bortuan zineztelarik, xuk erten duxu beste arzainak ikusten xinitila, bazinituela harremanak beste emen inguruko artzainekin.

B.: anitzekin ezautzen ginen emen, ardiak naasten baitira ta egoiten dira, egoiten txu ardiak beste tropa atian nahasi ta hantik berriz e aitzina ta berriak erten, to, hire ardia bauk han eta ola, denak ondo otakoak zautzen gintxin elgar artzainek.

E.: eta urrunekoekin xixtuz-edo bazinuten usaiarik ola?

B.: ori ez anbeste, guk ez, ehe, xuberotarrek ba ori, xuberotarrek bazixien ori, oiuka ta artzen zitxun urruneat-eta, hemengoek ez, emen beste... Elgarretaatzen ginelaik, elaka, ta ola, bana beste gisan ez, Xuberan ba, hori anitz.

E.: eta naiz hemen pixka bat urrun izan, Aezkoatik, Aezkoa, Erronkari, Orbaizetako arzainekin eta harremanik bazinuten?

B.: guk ez, gu urruntxo baigira, bena hor beste... Uarte-gañe ta Uarte-pe ta horiek ba, horiek kuutzatzen heekilan anitz. Ah, ori re bea ixit erran, negu bat pasatu nien Hazparnen, orbaiztar batek mutila nai zila, an bazkak erosiak zitien Hazparnen, orbaiztar batendako ina ixit nik negu bat mutil, abenduan asi eta maiatzain leen artio. Laundu nitien Ezentzuirano, Beobirano, eta geo gaua han pasatu ta biamunian joan zien ta ni etxeat, nik neguko nien bakarrik, ala.

E.: eta Orbaizetako arzaina heldu zen ardien ikusterat-eta? Edo...

B.: ah, negian ba, ba, ba, ba, asteleinetan eldu zen Donianeat, ta astelein atseko bazuen at, Hazparneat, joaiten zen norbaitekin, ta asteartian baitzen ango merkatia, bildotsak saltzen zitin berak, beti, bildotsak saltzeko zienak, astelein guziz jiten zen ikustea bere kabalen, ta hola, bai.

E.: beaz, xuk ez duxu kuutzada haundiik ukhan Hegoaldeko arzainekin.

B.: ez, gu urruno baigira hantik, guk ez, bena bestek baute ba hor anitzek kuutzada, Errozate ta horgo artzainek.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa
Letren Fakultatea
UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala